

24 orduz euskaraz Hernaniko kaxkoan

ABENDUAREN 2RAKO egin dute deialdia herriko hainbat eragilek. Euskaraz ederki asko egiten dutenei, erdipurdi dabiltzanei eta ulertu baino egiten ez dutenei, norberak bere alea jar dezan eskatuko diete. Egun arrunt batekiko alderik izango den ere neurtuko dute.

Abenduaren 3a Nazioarteko Euskararen Eguna dela aitzakia hartuta, azaroaren 29an hasi eta abenduaren 3a arteko ekitaldiak antolatu dituzte Hernanin. *Euskara ari du Hernanin* lelopean, hizkuntzaren erabilera bultzatzeko asmoz, hainbat eragile bildu dira antolaketa lanetan: AEK, udal eskualtegiak, herriko ikastetxe guztiak, Dobera euskara elkarteak, Banaiz Bagara, Berriaren lagunak eta Udala.

Antolatzaileek Kaxko auzo elkartari eta Berriak Merkatarari eta Ostalarien Elkarteari azaldu diete abenduaren 2ko asmoa eta haien laguntza eskatu. Harrera ona izan dute. 150 merkatarari eta tabernarire-

kin banaka-banaka hitz egin dute euskara bultzatzeko prestatu duten ekitaldiaz. Herritarrei zein merkatariei gauza bera eskatuko zaie: norbanakoak bere neurrian euskaraz aritzeko ahalegina egitea. Honako egoerak planteatu dituzte: euskaraz primeran daki baina gaztelaniarako joera du; bada, euskaldunak eutsi diezaiola euskarari. Beste batzuetan euskaldunak ez du pazientziarik erdipurdi euskaraz ari denaren aurrean; abenduaren 2an, Hernaniko kaleetan, euskara ikasten ari dena anima dezala euskaraz jarraitzera. Euskaraz egiten ez duenak berriz, lagunari edo dendariari esan diezaioke ulertzeko gai dela eta mesedez euskaraz egiteko. Kanean, poteoan, dendan, jolasean... Hernaniko kaxkoan horretan saiatuko dira abenduaren 2an.

Boluntario talde batek hizkuntza erabilera horien neurketak egingo ditu eta bost eguneko ekintza sortaren bukaeran emaitzak jakinaraziko dituzte.



Urtarrilean 1.go zenbakia

“ALEA”, ASTEKARIA IZANGO DA eta Araba osoan banatuko da. 32 orrialde koloretan izango ditu. Egitasmoa Geu Gasteiz Euskalduna elkarteak, Goienak eta Berriak jarri dute abian. Bi helburu ditu proiektuak: euskararen erabilera eta presentzia areagotzea eta euskarazko informazioaren bitartez lurraldea kohesionatzea.

0 zenbakia aurkezteko, azaroaren 29an jaia antolatu dute Oihaneder Euskararen Etxean. Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, Gasteizko hamaika gunetan eskutik eskura banatuko dute 0 zenbakia. Urtarrilean argitaratuko da 1. go zenbakia. Harpidetza urtean 50 euro izango da.

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Merkatarien Europa

EUROPAR BATASUNA (EB) ez da herritarren eta herrien Europa, merkatarien Europa baizik, kapitalarena eta multinazionalena. Eta EB politikoki gidatzen dutenak euren esklabuak dira, lekaioak. Ez da lehen aldia tesi hau baieztatzen duten gertaerak ematen direla. Orain, beste eskandalu bat ezagutarazi da, izebergaren punta izan daitekeena: 340 finantza eta multinazional talde handik (Citigroup, JP Morgan, Volkswagen, Ikea, Pepsi, Vodafone, Apple...) akordio sekretuak dituzte sinatuta Luxenburgorekin, zergak saihesteko. Jean-Claude Juncker EBko presidentea, Luxenburgoko lehen ministro izan zen, eskandalu honek eztanda egin duen herrialdeko mandatari, alegia.

Korporazio horiek lortutako eskugain fiskalak milioi asko balio du, sinadura batzuek euren etekinen %1etik beherako zergak ordaintzen baitituzte Luxenburgon. Etekinen gaineko zergak ez dituzte zerbitzuak eta produktuak saltzen dituzten herrialdeetan ordaintzen, hau da, ez dituzte %30 inguruko zergak

ordaintzen, eta herrialde horien (Frantziako eta Espainiako estatuak tartean, Euskal Herria barne) zerga-galera nabarmena da. Gobernuen murrizketa sozialak bezain nabarmena. EBko gainerako enpresek eta herritarrek aldiz, %25 eta %50eko zergak ordaindu behar izaten dituzte, hurrenez hurren.

Europako herriek eta herritarrek EBko gobernuak presionatu behar dituzte, gehiegikeria eta eskandalu horiek ahalbidetzen dituzten politikak errotik aldatzeko eta paradisu fiskalak ezabatzeke. Ez da erraza izango, europar politikak diseinatzeko, kontrolatzeko eta zuzentzeko finantza eta industria mandatari horiek baitira, herritarrek aukeratu ez badituzte ere. Herrien eta herritarren Europak aurrez aurre borrokatu beharko luke merkatarien Europaren kontra, multinazionalen eta kapitalaren kontra.

Juan Mari Arregi

